

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren urriaren 13ko 297/2015 Ebazpena. Horren bidez, agintzen da 1. Lehentasuneko- ordezkapenak eta ebentualitateak modalitateetako- aldi baterako kontratazioko behin-behineko zerrendak argitaratzea eta 2. Lehentasuneko -Erizaina, Erizaintzako Laguntzailea, Administrari Laguntzailea, Zeladorea eta Zerbitzuetako Langilea kategorietan-behin-behineko zerrendak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzea.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluak aldi baterako kontratazioko zerrendak sortzeko eta kudeatzeko modua arautu zuen 2011ko maiatzaren 9ko Erabakian (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6koa).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak 2011ko uztailaren 15ean emandako Ebazpenaren bidez, 1282/2011 zenbakiduna (EHAA, 142 zk., 2011ko uztailaren 27koa), onartu egin ziren 2011ko Enplegu Publikoaren Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak; horietan ezarritakoaren arabera eskuratzekoa zen lotura estatutario finkoa Osakidetzan.

Pasa den urteko abenduaren 22ko 361/2014 Ebazpenaren bitartez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideetako zuzendariak emandakoa, ireki egin zen 2014ko aldi baterako kontratazioko zerrendetan izena emateko epea (2015eko urtarrilaren 8tik 30era), 2011ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitutako kategorietarako eta ireki behar izan diren beste 5 kategoriatarako.

Behin zerrendok ordenatuta, kontuan hartuta horiek sortzeko irizpideak -laugarren atalean zehaztutakoak-,


EBATZI DUT

Lehenengo.- Agintzea da 1. Lehentasuneko -ordezkapenak eta ebentualitateak modalitateetako- aldi baterako kontratazioko behin-behineko zerrendak argitaratzea eta 2. Lehentasuneko -lanpostu hutsak, erreserbatutako lanpostuak, ordezkapenak eta ebentualitateak modalitateetan- Erizaina, Erizaintzako Laguntzailea, Administrari Laguntzailea, Zeladorea eta Zerbitzuetako Langilea kategorietako behin-behineko zerrendak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzea.

Zerrenda horiek indarrean sartuko dira 2015eko urriaren 20an.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka erreklamazioa jarri dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideetako zuzendariari 10 egun baliaduneko epean, ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko urriaren 13an


Jose Maria Armentia Macazaga
GIZA-BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA  EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO